


Euskal AEko BPGk urte arteko % 2,9ko hazkundera izan du 2017ko bigarren hiruhilekoan

Joan den hiruhilekoaren aldean, BPG % 0,9 hazi da

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPGk) urte arteko % 2,9ko hazkundera izan du 2017ko bigarren hiruhilekoan, urte-sasoiko eta egutegiko ondorioak behin aterata, EUSTATEk ondutako datuen aurrerapenaren arabera.

Aurreko hiruhilekoari dagokionez, hiruhileko arteko aldaketa tasa % 0,9koa izan da, aurreko hiruhilekoa baino bi hamarren gehiago.

Euskal AEko BPGren aldakuntza-tasak. (%) Urtaroen eta jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak. Aurrerapena

Eskaintzaren aldetik, 2017ko bigarren hiruhilekoko urte arteko hazkundera eutsi egin dio aurreko hiruhilekoan erakutsitako joerari; horretarako oinarria zerbitzu sektorearen bilakaerak eman du batez ere, baina baita industria sektorearen tonu positiboa

mantentzeak eta eraikuntza sektorean 2016 amaieran hasitako aurrerabide erritmoa berretsi izanak.

Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtua, % 2,2 hazi da aurreko urteko hiruhilekoaren aldean. Hiruhileko arteko hazkundera % 0,8 izan da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62